

FILOSOFIA SARRERA

1.SARRERA

1.1.FILOSOFIAREN USTEZKO ALDERDI NEGATIBOAK

Filosofia oso kritikatuak: 1. Orokorregia izateagatik 2. Ez duelako ezertarako balio

1.1.1.Aristotelesen ikuskera

Aristotelesek bereizi: zientzia eta filosofia (*filosofia zientzia ahal da?*)

- Zientziak: bakoitzak bere esparru mugatua eta zehatza, bakoitzak bere printzipioak, eta bere helburua frogak eskaintzea da.
- Filosofia: ez da hain zehatza eremu eta metodologiari dagokionez, ez dira frogak egiten

Bere arabera filosofiaren ezaugarri hauek ez ziren negatiboak, desberdindu soilik egiten zuen → Gaur egun zehaztasun falta honek negatibo bihurtu, orokorregia dela argudiatuz

1.1.2. Zientzien eta filosofiaren arteko banantzea

Aristotelesen garaian:filosofoa + zientzialaria batera, biak ezagutzaren inguruan (adib: Aristoteles, Hypatia, Galileo, Descartes).

- Denborarekin zientzien esparru autonomoa ezarri eta filosofiatik aldendu → horrela filosofiaren gutxiespena espezializazioa goretsiz → Zientzia/filosofiak gero eta harreman gutxiago, filosofiaren gaiak zientziaren esku
Baina, gai guztiak ezin dira zientziaren esku geratu. Adib: epistemologiak usteen gaia landu,. Hori psikologiaren esku geratuko balitz, gaia pobretu: bideen artean zein diren onak/txarrak, eta psikologiak jokabideak deskribatu arren ez dira ebaluatzen → (filofiaren lana da ebaluatzea hortaz).
- Zientzien garapenak → arazo filosofiko berriak (ezagutza handitzeak auzi berriak)

1.1.3. Filosofoak eta sofistak. Filosofoak eta hitzontziak

- Filosofoa era negatiboan: ondo hitz egiten kultura orokorra jakinik. (espezializazio*). Erlazioa *sofista* hitzarekin: hauek jendea konbentzitu ondo argudiatuz.
Gaur egun filosofo: filosofoa= platon eta aristotelesek definitutako sofistak
- Platon: sofistak mesprextatu
- Aristoteles: filosofo/sofista desberdindu. Sofistak: hizkuntza erabiliz tranpak. Filosofoak: jakinduria helburu eta hizkuntza zintzo erabili. Horregatik sortu bere logika argumentazioa arautzeko.

1.1.4. Filosofia apriorikoa al da? (Apriori/ Aposteriori) *kanten terminologia*

Zientzia guztiak (matematika ez) aposteriorikoa → mundua ezagutu hau garatzeko

Filosofia (jende askoren ustez!!) apriorikoa → munduaren premiarik ez

- Uste da: jakintza onak esperientziaren menpe
 - Filosofiak badu zeharkako lotura esperientziarekin
 - Zientziek ere badute maila abstraktu eta teorikoa
- Zientziak: balio praktikoa Filosofiak: balio praktikoa txikia (hau horrela al da?)

1.1.5. Filosofiak ez al du eraginik gizartean?

Grezia Klasikoan: egunerokoan lekua. Baina gaur egun ere eragin oso handia

- *Zinikoak*: arauen aurka; *Estoikoak*: arrazoimena gailendu; *Epikuro*: zoriontasuna bilatu; *Eszeptikoak*: dena zalantzan jarri; *Aristoteles* adib. Karlo Magnoren irakasle
- *Rousseau*: iraultza frantsesean eragina; *Adam Smith*: merkatu librea; *Karl Marx*: klase borroka eta gainbalioa; *Hannah Arendt*: totalitarismo, iraultza; *Peter Singer*: animalien eskubideak.

Filosofoen eragin praktikoa → Epe luzekoa. Baina ez da eragin eta garrantzi gabekoa

1.2.FILOSOFIAREN EZAUGARRITZE POSITIBORANTZ

1.2.1. Filosofia eta zientzia

Filosofiak ikerketa esparru propioa ez → baina galdera propioak bai (zientziak ezin erantz.)

Aukeramen askaren auzia

Gure ekintzak askeak dira? Hau zalantzan jarri da → askeak ez badira erantzukizuna eta ondorioekin zer egin? → Helburua pertsonaren askatasuna neurtzea: horretarako ikuspegi orokorra behar da

Errealitatearen gaineko ikuspegiaren arteko harremanak

Zientzia bakoitzak bere errealitatea. Guzti hauek nola erlazionatu? → Auzi filosofikoa

- Erredukzionalistak → osagaien bidez osotasuna azal daiteke
- Beste batzuek → osotasunaz aztertzen da osotasuna. Hau ezin du zientzia bateak aztertu horregatik filosofia. Zientziaren garapenak → garatu auzi filosofikoa

1.2.2. Filosofia zientziatik haratago

Filosofia praktikoa

Filosofiaren kezkak: ezagutza, etab. + giza ekintzei lotuta (mundua eraldatzeko ekintzak)

Ekintzak aztergai dituen filosofiari → *Filosofia praktikoa* (etika, estetika, filos. politikoa...)

- Zientziak ere ekintzak aztertu, baina era partzialean → deskribatzen du, baina ezin da arauemaile izan.
- Filosofia teoria/ekintza/artelan bat ona den esan dezake. Balioak filosofian aztertu

Zehar Kontzeptuak eta zehar auziak

Mundua kontzeptu sarea da → Filosofia aztertu: sare osoa + zehar kontzeptuak

Zeharka kontzeptuak → oso erabiliak era zabal eta transbertsalean. Erabilera zehatza ere.

- *Jakintza eta uste izatea*: Egunerokoan erabili, baina esanahia zehaztea oso zaila. Zenbat ezagutza mota? Zergatik desberdindu praktikoa/teorikoa?

- *Justizia*: erezi duguna jaso beharra, berdintasuna, inpartzialtasuna... justiziaren menpe. Honen alde legala: justizia sistema; baina legeak ere injustuak izan daitezke.

- *Kausa (efektu) kontzeptua*

- *Balioak*

- *Zoriontasuna*

1.2.3. Filosofiaren izaera kritikoa

Filosofia ikuspegi zabala → horregatik ahalmen kritikoa.

Zientziak printzipioak ditu → Filosofia printzipioak arakutzen ditu

<<Filosofia dituen muga bakarrak pentsamenduaren mugak dira>>

- *Russell*

- Filosofia ikasi behar da planteatzen diren galderengatik, ez erantzunengatik
- Filosofiaren funtsezko ezaugarria: kritika, bizitza eta zientziaren printzipioen kritika

- *Platon*

- Bere elkarrizketetan galdera askori erantzun (zer da ongia? justizia? ezagutza?), baina beste batzuetan ez, erakutsiz auzia ez dela sinplea.

Filosofiaren ahots kritikoa ahaztuta, eta partzialagoak nagusi → ikuskera orokorra baztertu. Auzi asko sakonago pentsatu beharko lirakeke, baina ez da egiten → eztabaida saihestu

- Sistema kapitalistak lortu du sujetuak kapitalistak izatea. Horrela eztabaida lausotu
- Adierazpen askatasuna; teknologia; mundu pobre, kutsatu, gerraz betea...

2.EZAGUTZAREN TEORIA

Ezagutza (jakin) kontzeptua erdian.

- Erabilpen asko: objektu bat ezagutu, gertakari bat ezagutu, zerbait jakin-nola. Baina hemen gertakarien ezagutza landu, justifikazioari lotuta dagoena [Gramatikalki: subjektua+jakin aditza+gertakari bat adierazten duen perpausa.]
- Jakitea: egiazkoa izan behar da (jakin-egia lotuta). Ustea: faltsua izan daiteke egia izaterari utzi gabe, baina egia izan nahi dute.
- Jakin/uste bereizketa botere kontua → botereak iritzia zabalduko du, baina horrek ez du jakintza bihurtzen iritzia. Hau salatzeke adib baliatu daiteke egia eta ezagutza
- *Ezagutza, egia, errealitatea eta justifikazioa* kontzeptuek funtzio bat bete. → Baina honen aurka daude adib erlatibistak, baina hori aldarrikatuz kontraesan bat sortuz

2.1. JAKITEA/ USTE IZATEAREN ARTEKO ERLAZIOA. JUSTIFIKAZIO KONTZEPTUA.

- Zerbait dakigunean sendoagoa da uste dugunean baino (jakin/uste bereizketa)
 - Platon Teeteto elkarrizketan jakitearen izaeraz arduratu: (3 definizio)
 1. Jakitea hautematea da: erlatibismoaren auzia landuz honen kontraesanak agerian utziko ditu. Dena << Xren araberrak >> bada, okertzea ere ezinezko izango da. Baina Platonek egiari lotuta dagoela defendatzen du honen aurrean.
 2. Jakitea egiaz uste izatea da: uste batzuk bakarrik dira jakitea, eta uste hori izan behar da jakiteko. Uste horrek oinarria/ebidentzia izan behar du, bestela ez du errealitatearekin zerikusirik errealik (kasualitatez egia balitz ere)
 3. Jakitea egiaz eta justifikazioz uste izatea da: Egiaz uste izateaz gain justifikatu behar da.
 - P justifikatzeko Q justifikatu behar bada, etb. justifikazio gabekoa aurkitu behar da [zuhaitz epistemologikoaren sustraia] → fundazionalistak
 - Beste filosofo batzuen ustez ez dago zuhaitz ez sustrairik. Sare baten itxura du eta koherentziaz bete behar da.
- Hala ere ez da nahikoa egiatan eta modu justifikatuan uste izatea jakiteko, justifikazioak huts egin dezakeelako. (irtenbide ezberdinak auzi honi)
- Jakitea eta huts egitea gerta daiteke, beraz jakitea uste mota bat izango da (bien arteko muga hautsiz)
 - Jakitea ziurra bada eta hutsik gabekoa, agian ezin da ezer jakin (eszeptizismoa)
 - Uste ziur batzuk daude, eta handik abiatuz beste uste ziur batzuk ondorioztatu daitezke

- Descartes: uste ziur batetik abiatuko da bestea ondorioztatzeke era fundazionalistan (pentsatzen dut, existitzen naiz...)

2.2. ARAZOAK JUSTIFIKAZIOAREN KONTZEPTUAN. INDUKZIOAREN ARAZOA

Jakitea definitzeko arazo handiak → “uste justifikatu” bezala defini daiteke

- David Hume justifikazio kontzeptua erasotu → aprioriko eta aposterioko ezagutzak ezberdintzen ditu. Zientziak (mate ez) aposteriokoak dira, horregatik indukzioa erabili, baina hau justifika ezina da. Indukzioak premisa ezkutu bat du: etorkizuna iragana bezalakoa da, hau ezin da justifikatu, beraz, indukzioaren arazoa sortzen da.

2.3. FUNDAZIONALISMOARI MUZIN. KOHERENTISMOA?

Ziurtasunaren mitoa izan daiteke auzi honen arazoa → Fundazionalismoari muzin

- Descartes → gertakari batzuk ziurtasunez ezagutzen ditugu (pentsatzen ari naiz), eta handik ondorioztatu besteak. Adib. badakigu ziur aurrean dugunaren irudipena dugula. Arazoa da irudipenetik hori erreala dela onartzearen auzia. Berak ziurretik eraiki nahi du ezagutza ziurra, horregatik hipotesi eszeptiko asko planteatzen ditu gainditzeko (zentzumeneke huts egin, ametsetan...).
- Hume → Jakite batetik beste batera dagoen jauzia justifikatu nahi du, era fundazionalistan. Iraganeko gertakarietan etorkizunekoak oinarritu nahi ditu. Baina jauziak ez du bermerik, aurre egiterakoan eszeptizismoan eror gaitzke

Bien planteamendua antzekoa, eta eszeptismoa gainditzeko → egitura ez onartu

Beste plantemendu: sare forma/ koherentismoa → baina koherenteak diren gezurrak daude

Susan Haack → Erdibide bat planteatu “*gurutzagrama*” ideiarekin. Koherentzia + arrastoak baliatu.

2.4. AGRIPA-REN ESZEPTIZISMOA

Agriparen planteamendua: P justifikatzeko, P1, P2... katea sortuz. Noiz lortu P justifikatzea?

1. Kateak ez du amaierarik - kate infinitua
2. Katearen amaiera q da, eta q-k ez du justifikaziorik behar - beraz justifikaziorik gabeko ustea onartu behako genuke
3. Kateak amaiera du usteetako batekin (q) - Errealitatean gurril-zoro bat da q inguruan

Baina Agripak ez du bat ere onartzen guztiz, zailtasunak dituztelako.

Bigarrena → fundazionalistek baliatu Hirugarrena → koherentistek baliatu

2.5. LEKUKOTASUNA

Usteetako asko lekukotasunaren bidez eskuratu → beste norbaitek informazioa/usteak emanda, edo zerbaitetik hartuta (liburua, internet, GPS...) eta geure egiten dugu.

Epistemologiaren baitan garrantzi ezberdinak: (zenbateraino indar epistemologikoa?)

- Locke: epistemologian beheko mailan, ezagutza ematen ez duelako, ziurra eza delako.
- Thomas Reid: lekukotasunak bere garrantzia duela aldarrikatu, bi printziori esker.
 1. Egiazkotasun printzipioa: gizakiak egia esateko joera
 2. Sinesgarritasun printzipioa: sinisteko joera
- Edward Craig: lekukotasunaz hitz egiteko ezagutza-kontzeptua erdian, informazio-iturri onak/txarrak bereizteko. Ezagutza lekukotasunaren zerbitzura.

- Hume: lekukotasunetik eratorritakoa ezinbestekoa. Baina lekukotasuna epistemologiaren menpekoa da, eta honetan oinarritu.

Umeetan dena sinistu arren, usteen sarea handitu eta sendotu ahala gehiago kostatu ditugun uste eta uste berezi/autoritatezkoen artean egokitzea.

- Lekukotasunak ere garrantzi berezia epaiketetan, ebidentzia batekin talka egin arte gutxienez

3.METAFISIKA

Metafisika Aristotelesekin sortu. Gai desberdinak landu zituen:

1. Lehen printzipioa, gauzen oinarria (archai) 2. Ontologia, izatea 3. Teologia, jainkoa
Metafisika hitzak → objektu fisikoetatik (natura) haratago dagoena aztertu

3.1. SAILKAPENAK. SAILKAPEN NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

Sailkapenen bidez banakoak sailkatu + ingurua antolatu → naturalak edo artifizialak

Sailkapenak ezaugarri eta antzekotasunaren arabera egin

- Genero artifizialak: hemen sartzen dira ezaugarri/funtzio bera duten gauzak, baina beti ere gizakiak zehaztutakoak dira. Adib. liburuak: funtzioa gizakiak egotzi
- Genero naturalak: naturan topatutako sailkapenak dira, gizakien eskuetan solik ez dagoena. Ageriko ezaugarrien arabera eginda. Adib. Tigreak.

-Erlatibistek eta eszeptikoez sailkapena zalantzan jarri → testuinguruaren arabera

3.2. BANAKOAK ETA EZAUGARRIAK

Errealitatearen antolaketa eta osagaiak aztertzeko → banako eta ezaugarriez hitz egin

- Batzuk esan → errealitatean baino, hizkuntzan dagoela banaketa hori, eta hizkuntzaren antolaketaren arabera banatu errealitatea. Berezko egiturarik ez.
- Baina → hautematea gogo-prozesua da, beraz hizkuntzatik kanpo egon daiteke. Naturan badaude hizkuntzarik ez dutenak eta banako/ezaugarrien arabera zatikatzen dutenak → Beraz, banako/ezaugarri zatiketa hizkuntzatik at
- Gizakiak ezin du errealitatea objektiboki ikusi, ezin diolako bere gogo- pentsamendu-hizkuntzari ihes egin. Errealitateari bere "sarea" botatzen dio ezagutzeko, baina ez da dena hautemateko gai, horregatik sarea sendotzea bakarrik gelditzen zaio
- ARISTOTELESen metafisika → *den* guztiaz arduratuko da, *den heinean* bakarrik. Izatea era ezberdinetan sailkatu daiteke, (*Kategoriak* liburuan proposatu). Horretarako banako/ezaugarri dikotomia horren arabera: [Banakoa(Greta): substantzia] [ezaugarria (zakurra): kualitatea (beltza), erlazioa (x baina -agoa)...] → Denari buruzko ikuspegi ontologikoa.

Ontologiaren erdigunean substantzia. Honen menpe gainerako kategoriak (hauek ere ez daude denak maila berean).

Aristotelesen proposamena: banakoa, motak eta ezaugarriak (konplexuagoa)

3.6. PREDIKATUAK, KONTZEPTUAK ETA EZAUGARRIAK

Predikatua → perpausaren osagarria Ezaugarria → ontologiaren ezaugarria

Kontzeptu → batzutan predikatu, besteetan ezaugarri, beste batzuetan ez bata ez bestea

- Predikatuek Frege filosofoak azaldutako erreferentzia eta zentzua dute, zentzua zerbait deskriba daitekeelako eta erreferentzia zerbait konkretuti erreferentzia egiten diolako.

- Kontzeptuek ezaugarri hauek izan behar dituzte: 1.ezaugarriak identifikatzeko baliagarri 2. intersubjetiboak dira 3. Epistemologikoki gardenak, ezaugarriari lotuta
- Predikatuak: hizkuntzan Ezaugarriak: errealitatean Kontzeptuak: buruan

3.7. ALDAKUNTZA ETA EZAUGARRIAK. IDENTITATEA

Aldaketa mota asko ematen dira, baina ze aldaketa motak daude banako batean?

1. Ezaugarri aldaketak 2. Ezaugarri berekin, neurria aldatuz 3. Existitu eta existitzeari utzi Aristotelesen arabera → aldaketa bat dagoela esateko zerbait aldatu gabe geratu behar da. Banako bera izaten jarraitu behar du, identitateari eutsi.

- Aldaketak ez du identitatea beti bermatzen “mota” ezaugarria aldatuz gero beste zerbait bihurtzen delako.
- Ezaugarri batzuk esentzialak, “mota” izenekoak adibidez.
- Galdera da identitatearen giltza zein da? Funtzioa, osagaiak, lurraldea?

3.8. DIRUDIENA, BENETAN DENA. EZAUGARRI KATEGORIKOAK ETA DISPOSIZIOA

Egunerokoan dirudiena eta benetan dena bereizten ditugu, honen inguruan lanketa asko.

- Demokrito: ezaugarri batzuk gure arabekoak direla eta gu desagertzean desagertuko lirateke. Adibidez: koloreak
 - Locke: -tasun lehenak eta -tasun bigarrenak desberdinu. Lehenengoak errealak dira, adibidez hedadura eta mugimendua. Bigarrenak gudan daude, adibidez koloreak eta hotsak.
 - Zenbaitetan sailkapen hau egin: ezaugarri objetiboak/ ezaugarri subjektiboak
- Hori dela eta errealitateari dagozkion usteak ez daude maila berean.
- Ezaugarri lehen eta bigarrenak → ezaugarri kategoriko eta disposizionalak. Disposizioen bidez objektuaren joera edo ahalmena adierazi.

3.9. ERLAZIO KAUSALA

Izateari lotuta beti daude gertakariak, egoerak eta gertaldiak → hauek elkarren harremanean ikusten ditugu. [X gertaldiak Y gertaldia kausatu] → Horrela osatu errealitatea Kausaren bidez ulertzen dugu errealitatea, bestea mundua bestearekiko independentea izango litzateke, ezerk ez luke izango ezerekin harremanik.

- Egunerokoan erabili kausa kontzeptua kausazko perpausetan.

Erlazio kausala filosofoek landu. Aristotelesen ustez metafisika da kausen zientzia.

Lau kausa mota bereizi Aristotelesek: materiala, forma, eragilea eta xedezkoa.

- Kausak efektuaren gaineko erantzukizuna

Lotura kausala maila berdineko gertakari edo desberdinekoen artean eman daiteke (adib. psikologia + fisika) → Maila ezberdinekoen artean arazo filosofiko bat sortzen da (gorputza/arima lotura?)

Erlazio kausaletan bi osagai: kausa eta efektua. Kausak identifikatzea ez da horren erreza

- Hume: lotura kausala ez da argi hautematen, lotura ez dagoelako. Gizakiak bere burutik proiektatzen du kausalitatea, eta funtsa errepikapenean eta erregulartasunean dago. Kausalitatea onartzen du bakarrik: k gertaldiak e kausatu
1. k e baino lehenago izan bada 2. k K gertaldi motakoa eta e E gertaldi motakoa bada, eta Kren ostean beti E gertatzen bada
- Berak gai honi garrantzi izugarria, baina gai metafisikoa zen zalantzan jartzen zuen

- Humei kritika: kasualitatea edo kointzidentzia kausalitate bihurtzen du. Esan daiteke eszeptikoa zela gai honetan.
- Ikuspegi kontrafaktikoa: erlazio kausala da
 1. k eta e gertatu dira
 2. k gertatu ezean e ez zen gertatuko
 Baina 2. puntua motz geratzen da. Adib. jaiotzeak hiltzea ekarri

3.10. ERREDUKZIONISMOAREN AUZIA

Banakoak konplexuak dira → horregatik atalak eta zatiak.

Baina konplexutasun mota ezberdinak daude:

1. Harri meta: ezaugarriak osagaien ezaugarriak dira.
2. Smartphone: osotasun bezala bere osagaiak ez dituzten ezaugarriak ditu. Osotasunean soilik uler daiteke.

Emergentistak: osagaien ezagutzak ez dakar beti osotasunaren ezagutza. Adibidez bizitza, eta ezin da bere osagaietara erreduzitu fenomeno emergentea delako, hau da osotasun konplexu baten ondorio berri bat.

Erredukzionistak: mundua piramide gisa irudikatu. Oinarrian fisikaren legeak, hau lege kimikoak ondorioztatu, etab. Bizitzaren ezaugarriak DNARA erreduzitu.

10. ARGUDIATZEARI BURUZ: DEDUKZIOAK, INDUKZIOAK ETA ABDUKZIOAK

Argudioa: baieztapen egitura da, baieztapena bat ondorioa eta gainontzekoak premisak (baieztapena faltsua izan daiteke)

- Alde batetik → argumentuaren forma/estruktura (logikak hau aztetu)
- Bestetik → premisak egia/gezurra izatea

→ Argudioa zuzena izateko: 1. Premisa egiazkoa 2. Argudioa sendoa

→ Argudioa konbentzigarria: 1. Premisak egiazkotzat daudenen artean 2. Argudioa sendoa

Argudiak sendoak edo baliozkoak diren aztertze *logika* → egiaren auzia kanpoan geratu

DEDUKZIOZKO ARGUDIOAK:

A guztiak B dira

B guztiak C dira

Beraz, A guztiak C dira

- Logikak: baliozkotasuna bilatu (formaren arabera) era formalean
- Ondorioan adierazten dena argudioetan ematen da inplizituki. Ezin da gertatu premisak egia izan eta ondorioa faltsua izatea.
- Argudioak zuzena izateko: argudioa baliozkoa eta premisak egia
- Matematikaren tresna

INDUKZIOZKO ETA ABDUKZIOZKO ARGUDIOAK:

(i) Kasu indibidualetatik lege orokorra

(a) Egia den premisa batetik hipotesi bat

- Ezin da baliozkotasunari buruz hitz egin, sendotasun/justifikazio mailari buruz baizik modu gradualean. Beraz ez da formala dedukzioaren logika bezala.
- Ondorioan premisetan ez dagoen informazioa ematen da. Gerta daiteke premisak egia izan eta ondorioa faltsua izatea (sendoa izan arren), beti dago arriskua.

- Etorkizunari buruzko usteak, edo bizitza antolatzeko baliatu argudio mota hauek. Adib. zientzialariek proposatutako legeak, ezin deduktiboki justifikatu
- Argudio induktibo bat adib: inkesta bat, eta lagina osotasun bihurtu. Lagina baliozkoa izango da tamainaren arabera eta aukeraketa ona egitearen arabera.
- Argudio abduktibo bat adib: kalkuak egin eta ondo egoteko Neptuno planeta existu behar zen, urte batzuk geroago ikusi zuten egia zela.
Baina abduktiboki egiten den hipotesia faltsua dela erakusteko deduktiboki argudiatu behar da
- Askotan hipotesi asko aurkezten dira, beraz sendoena zein den azaltzea izango litzateke logika honen asmoa. Hala ere, hipotesiak falaziak izan daitezke.

ARGUDIOEN FORMARI BURUZ GEHIAGO

Baliozko argudio forma gehiago:

- (i) a etorri da / beraz baten bat etorri da
- (ii) A guztiak B badira / ez dago B C denik / beraz ez dago A C denik
- (iii) Baldin p , orduan q / ez q / ez p
- (iv) p eta q / p
- (v)**** p edo q / $p \rightarrow$ Premisa egia izan da faltsua izan daiteke, ez da baliozko argudioa